

## 14.000 pertsona izan dira Getxoko Liburu Azokan

Pasa den asteburuan Algortako Telletxe plazan egindako liburu azoka 14.000 lagun inguruk bisitatu zuten, Getxoko Kultur Etxeak eman dituen datuen arabera. Antolatzaileen esanetan, 15 edizio honetan ere 'bermatu da Liburutegi Zerbitzuen ekimen horren arrakasta. Bisitari jarioa etengabea izan da, nahiz eta eguraldi kaskarra egon'. Lau egunez, apirilaren 20tik 23ra, plazak bertoko 10 liburu-dendaren etxolak hartu zituen eta bertan jarduera anitz egon zen. Bisitariak azken liburu nobedadeak ikusi eta erosteko aukera izan zuten Algortan. Aurtengo obrarik salduena Eduardo Mendozaren 'El enredo de la bolsa y la vida' izan zen. Haur literaturari dagokionez, 'Kroko' eta 'Geronimo Stilton' bildumako liburuak izan ziren arrakastatsuenak. Argazkia: © Getxoko Kultur Etxea.

Ohi denez, hainbat ekitaldi izan ziren azokan, horietako gehienak aurtengo gaiari lotuta: zinearen mundua, hain zuzen ere. Aurten, besteak beste, irakurtzeko txokoa, haurrentzako jolasak, film laburren proiektzioak, tailer-ikuskizuna, ipuin kontaketa eta hitzaldia izan dituzte aukeran zaleek. Halaber, tokiko bildumako argazki zaharren erakusketa egon zen azokan. San Nikolas plazako bilakaera hartu zuen gai aurten erakusketak. Horiez gain, ohiko jendaurreko irakurketa ospatu zen azokan, Getxoko ikasleen eskutik. Aurtengoan, 300 ikaslek parte hartu zuten ekitaldi horretan ipuinak zuzenean irakurtzeko.

Azkenik, nabarmentzekoa da zenbait egileren parte-hartzea. Aurten honako autore hauek sinatu zituzten liburuak Algortan: Tesa Gonzalez, Ana Iturgaiz, Gonzalo Iribarnegaray, Esther Zorrozueta, Iratxe de Valles, J. Carlos Martinez, Mari Paz Giambastiani eta Eusebi Ruiz.